

# ZEINU HIZKUNTZA 2021 K SARIA

Urriaren 23an 2021 urteko Tolosako zeinu hizkuntzan egindako filmen jaialdia ospatu da. Urtez urte zinemaren bitartez pertsona gorren errealitatea gizarteratzen diharduen zinemaldia da. Aurten einu hizkuntzako filmak ikusi ahal izateaz gain bestelako ekintza batzuk ere garatu dira jaialdiaren baitan. Isabel de las Heras-ek eskainitako zeinu hizkuntzan komikiak egiten ikasteko mintegia.



Zineklubok osatutako epaimahaiak aurtengo aukeraketa osatzen duten lanak ikusi eta K saria nork epaia ebatzi eta ondorengoa adierazten dugu:

Elkar ulertzeko hitzak baino gogo beharrezkoagoa dela argi eta garbi uzten digulako. Jendarteari orokorrean ezezaguna zaigun gor-itsuen errealitatera gerturatzeko gaituelako eta solasaldi interesgarriak sorrarazi ditzakeelako: 2021 Zeinu Hizkuntza K saria Doug Roland-en FEELING THROUGH laburrari ematea erabaki dugu.

**ZEINU HIZKUNTZA ZINEMALDIKO 2021 K-SARIA**

**Feeling Through (2020)**  
Doug Roland



COENIZ 21 KESALA zinetogram AMUA DONOSKINDO ZITIK Anitta debbal MEDIA PARTER Cine&Tele

Jaialdi orok bezala epaimahai ofiziala ere badu, kasu honetan ikus-entzunezkoetan modu profesionalan dabilzan pertsona gorrek osatua da, eta ondorengo sariak banatu dituzte:

- Gidoi onena: Alicia Sort (ATEN)
- Gizonezko aktore onena: Daniel Aquila (TE QUIERO PA)
- Emakumezko aktore onena: Carlota Boronat (ATEN)
- Muntaketa onena: Raul Ruiz (EL CIRCLE)
- Argazkilaritza onena: Ramon Granja (TE QUIERO PA)
- Zuzendari onena: Pablo Navarro (LLADRES DE TEMPS)
- Zuzendari gazte onena: Alicia Sort (ATEN)
- Film labor onena: LLADRES DE TEMPS
- Atzerriko film labor onena: FEELING THROUGH



K sarien irabazleak bere filma zineklub sarean ikusi ahal izateko eskubidea du. Mouse, Sticker eta oraindik ospatu ez diren zinemaldietako saridunekin batera K saria zirkuitua martxan jarriko da zinematografia desberdina herri guztietara iritsi ahal izan dadin.